

ANAITASUNA

229. zenb.

1972.eko Otsailaren 29ekoa

Jardin Txikerra, 1. BILBAO-12
Tel. 43 18 37



Neska bi ebiltzan

Neskatila bi ebiltzan lanean Gernikako enpresa batean. 50 gizonen altzairu lantegi batean darabiltzan gorabehera guztien papeleoa edo bulego* lana garbitzen eben bien artean. Zaharragoak, Pili, 21 urte zituan. Gazteagoak, Begoña, 20. Biok herritarrak izanik, eta lanleku berean ebiltzalarik, elkarren lagun handiak ziren. Ofizina-ko zereginak beteaz batera, elkarrekin ohi diren hizketa luze eta era guztietarikoak egiten zituen. Euren betebeharrak, horregatio*, ozta ozta baina beti aurrera eroaten zituen.

Gure Pili eta Begoña biok batera ateratzen ziren

erromeria eta jaitokietara, igande eta festa egunetan. Elizara ere joaten ziren, hurreri kristau dotrina ahal eben moduan irakatsiz. Kristau kontestatarioen artekoak ziren; baina, isileko politikariren berri izan arren, ez zituen azken honeek ezagutzen, entzutez izan ezik.

Begoña, gazteagoa, dotoretxoagoa zan: aurpegi polita eukan eta gorputz liraina. Pili, oster*, gorputzez gizen xamarragoa zan, izakeraz zekentxoagoa, eta mutilen aurrean ez eban Begoñak hainako* erakarpenik.

4. orrialdean jarraitzen da

Ez nahastu gero!

Berau, orain urte batzuk jazo* zan Gernikan.

Igande goiz batean, neska-mutil talde bat Bermeotik irten* zan, menditik ibili ondoren, Gernikan bazkaltzeko asmoz. Guztiek janaria eraien aldean, ogia izan ezik, bidean alferreko kargarik ez eukitzeko, berau Gernikan erosteko ustea euken eta.

Gazte guztiok euskaldunak ziren. Baina ba egoen bat, Jon eritzona, bilbotarra bera, euskaldun berria izanaz, oraindik euskaraz kili-kolo xamar ebilana. Mutil honek, baina, euskara ikasi guraz, hantxe iharduan jo eta ke, beti euskaraz.

Beste gazteek adarra jotzen eutsoen hasieran, euren modura, bermeotarren erara **oin ein biogu** barik,* beti **orain egin behar dogu** esaten ebalako, bat ere letrarik jan gabe. Bidean, neska batek, Arantxak, oker ez bana-go, honetara esaten eutson: —Hara, Jon! Gramatikan **egin** da, bai; baina, gure artean berba normal egiteko, gure modura **ein** esan behar dozu zuk ere, erdiko **g** hori janda.

Asko kostatu jakon gizajoari; baina, eguerdirako, **ein** esaten eban Jonek berak ere.

Gernikara heldu zirenean, ogia erostera joan behar eben; baina, menditik luzaroegi egonaz, beranduegi egin jaken eta Gernikan dendak hitxita topatu zituen. Honela, ba, taberna batera sartu beharko eben, ogia erosiko baeben.

Jon, berak erosiko ebala esanaz, janariak eta ematen dituenetarikoa ardanetxe batera sartu zan, ogi bila. Eskaratzera* sartu eta honela itaundu* eutson, bertan lapiko* artean egoen andreari:

- Egunon, andrea. Oirik ba daukazue?
- Oiak? Bai. Zenbat behar dozue, ba?
- Zelakoak dira, handiak ala txikiak?
- Handiak. Baina...?!
- Orduan —esan eban Jonek, kontuak eginaz— handiak badira, gu sei neska-mutil gara eta, biri bana... Hiru, hiru behar ditugu.

Etxeko andreak espantuz entzuten eban. —Zu, baina zer pentsatzen dozu dala etxe hau? Hemen ez behintzat!

— Ez, ez —esaten eutson Jonek patxada handiz—. Mendira eroatekoak dira, hemen jende asko dago eta.

- Oiak mendira eroan! Burutik eginda zagoze ala*?
- Ez horixe, Jaungoikoari eskerrak.

Memento haretan Arantxa sartu zan eskaratzera, ea ogiekin zer pasatzen zan jakitera.

Tabernako andreak neska ikusi ebanean bertara sartzen, guztiz harriturik, honetara esan eban: —Hau da hau! Neska lotsagaldukoagorik oraindik!

— Zer, ba? Lotsabakotasuna ote da ogi erostera etortzea ala?

— Ogiak! —deihadarka andreak—. Nik neuk, «oiak» (oheak) zirela uste neban. Ez ditu, ba, mutil honek «oiak» eskatu!

— Ba, nik neuk —esan eban Jonek—, **egin ein** esaten bada, **ogia**, bide beretik **oia** esan beharko nebala uste neban eta...

Ogia erosi eben, bai horixe; baina zenbat barre ez eban Jonek entzun behar izan arratsalde haretan.

— Oheak mendira ekarri gura* zenduzan, ez da? —esaten eutsoen lagunak holgetan,* Batek jakin, gainera, bertan zer egiteko asmoz!

Sasoi haretan guzti hau bromaz hartu zan, jakina, euskal umore jatorraz; baina gaur egun, Larraizko gezur guztiei zenbaterik egiten dautseen kasu ikusirik, Jon giza-joa, «gazteria okerbidera» eroan gura izateagatik, eskomikatu* izango zan baten baino gehiagoren aldetik.

TRAUKO

dautsee, **diete**
eban, **zuen**
eben, **zuten**
ebilan, **zebilan**
egoen, **zegoen**
eritzon, **zeritzan**, zeritzon
erorien, **zeramaten**

euken, **zeukaten**
eutsoen, **zioten**
eutson, **zion**
iharduan, **ziharduen**
jaken, **zitzaien**
jakon, **zitzaion**
neban, **nuen**
zenduzan, **zenituen**

Bilbo

KANTARIAK

Otsailaren* 13an, «Santiago Apòstol» ikastetxeko teatroan, «Oskorri» taldeak kantatu zuen jende pila handi baten aurrean.

Ene eritziz, hauxe dugu gaur egunean kantari taldeen artean onenatarikoa, hoberena ez bada. Hauxe frogatu* zeukuten aipatu* jaialdian.

Bai hitzen aldetik, bai eta teknikarenetik ere, goi mailakoak izatea lortu* dute Bilboko Unibertsitateko gazte hauek.

ABADIÑON EZ

«Oskorri» taldekoei entzun ondoren, Abadiñora joateko asmoa genuen, Jon Enbeitari entzutera; baina, tasmalez, hango jaialdia debekatua izan zen.

LIBURU INTERESGARRIA

Euskal Irakasleen Elkarteak liburu interesgarri bat argitaratu berri du.

Liburu honetan hainbat hiztegi tekniko daude, aritmetika, geografia, biologia eta beste zenbait arlotan erabiliak izateko. Beraz, ikastoletako ikasleentzat eta liburu eta aldizkarietako idazleentzat, beharrezkoa.

Baina zuretzat ere, irakurle, balio handia du, bertan agertzen baitira euskara batuan jarriak, egunero erabiltzen dituzun hitzak: janzkiak, janariak, herrien izenak, eta abar.

Eska ezazu ikastoletan («Ikastola Hiztegia» du izena), edo hemen Bilbon, Euskaltzaindian (Ribera kaleko 6.ean). Prezioa, 50 pezeta.

XABIER GEREÑO

Anaitasuna-ren manifestua

ANAITASUNAKo zuzendaritzak, idazkaritzako batzordeaz batera, aldizkari honen joera, Euskal Herriaren problemei ondoen dagokien eraz bideratu nahiz, ondoan aipatzen diren puntuok onartzen ditu, hemendik aurrera aldizkari honetako idazleek eta irakurleek kontuan har ditzaten:

1. ANAITASUNAK, orain arte bezala, euskararen batasunaren alde egingen du, bai ortografian eta bai, ahal den neurrian bederen, hiztegian ere. Aditz kontuan, Euskaltzaindiak besterik agintzen ez duen artean, lapurtar kutsuko gipuzkeraz segituko da, berau euskaldun guztiontzat egokiena eta aberatsena delakoan.

Bizkaiko euskaraz ere —batusunerako joeradun bizkaieraz, noski— zenbait artikulua eta kronika argitaratuko dira, oraindik mami gehiegiko lanak irakurtzera ohituta ez dauden bizkaitar irakurleen foborez, berauek irakurleen arteko atal inportante bat osatzen dutela kontuan hartuta.

Orain arte legez, ahalegina egingo da, euskara ulertterraza erabiltzeko. Beraz, idazkeraren aldetik ilunak nahiz ulergaitzak diren artikulua ez dira onartuak izango.

Artikuluaren luzerari buruz, idazleei erregu bat egin nahi genieke, hots, idazlan luzeegirik ez bidaltzeko; eredu gisa, makinaz idatziriko orrialde bat eta erdi proposatuko genuke, lerrorik lerro tarte bat utzirik, noski.

2. ANAITASUNAK, herritasunari dagokionez, Euskal Herriaren aldeko lanetan iharzukiko du, beronen izaera, hizkuntza, literatura, historia, ekonomia, folklore, ohi-tura eta kirolen alde egingez beti.

Gauden memento honetan gaudelako, ez da onartuko Herriaren nortasunaren lehengo ezagugarri hoi kontrako kritikarik, ezer positiborik eskaintzen ez bada behintzat.

3. Sozial arazoei eta politikari dagokienez, ANAITASUNAK jarrera aurrerazale bat izaten jarraiki nahi du, gizartearen aurreramenduari lagun dakioken guztiarekin batera joanez, Elizak begi onez ikusten dituen joera sozialistak onartuz. Ordea, gaurko Euskal Herriaren politikan eta joera sozialistetan erabateko batasunik ez dagoenez gero, ez dirudi zuzen, ANAITASUNA inoren jokabidearekin lotuta egotea; bai, ostera, bere orrialdeak elkarren artean joera hurbil baina ezberdina duten guztiei eskaintzea. Honetarako, hala ere, talde bakoitzak bere joera agertu eta azaldu beharko luke, baina positiboki, inorena ere errespetatuz, hots, ahalik eta gehien, «zer egin behar den» esanez. Ez da hemen zertan aipatu behar, ANAITASUNAn ezin argitara daitezkeela, beren izaeragatik aldizkari honi ez dagozkion artikulua politikoa bereziak. ANAITASUNAK, arlo honetan, euskal taldeen ideologiaren biltzaile eta hurbiltzaile izan gura luke, ez urruntzaile.

4. Erljio arazoan, ANAITASUNAK joera zabal eta aurrerazaleko aldizkari kristau bat dela jakin erazten du argi eta garbi; beraz, dogmaren eta Elizaren irakatsien

kontrako ezer —hitz hauen zentzurik zabalenean, noski— ez da onetsiko.

5. ANAITASUNAK kritikak ontzat hartzen ditu, baina beti gizabide eta elkarrenganako errespeto baten barnean. Irainak eta asmo pertsonalegiak ez dira onetsiak izanen.

6. ANAITASUNAK aldizkari ireki bat izan nahi du. Artikuluak eta lanak, aurreko puntuotan aipatzen diren baldintzetan sarturik badaude, ez dira inoiz inolako aurreritzi pertsonalez errefusatuko. Honek esan nahi du, edozeinek —edozeinek gero!— idatz dezakeela libreki bertan, kondizioak betetzera baditu.

Eta, jokabide hau hemendik aurrera zintzoki eraman nahi dugularik, berau betetzeko egiazko konpromezu bat hartzeko asmoz, geure irakurle eta idazle guztiei aditza ematen diegu.

Bilbotik, 1972.eko otsailaren 7an.

Liburu estrainu bat

«La unidad nacional y los nacionalismos españoles» izenburuarekin argitara eman berri dau Mexicoko «Grijalba» argitarazleak, Antonio Ramos Olivera jaunak presaturiko liburu bat. Bere ideia edo tesi funtsezkoena* Stalin zanagandik jasotzen* dau, eta liburuaren 121. orrialdean dakar: «Herriek autodeterminatzeko eskubidea dauke. Baina ez da ahanztu* behar, Errepublikak ere (Sobietarren Errepublikari buruz ari da) bere poderioa jagozteko eskubidea daukala. Eta azken honi men* egin behar dautsoe besteek».

Erdal aldizkariak euskal langileei buruz

«Mundo Internacional» izeneko erdal aldizkaria, bere 1.656. alean, Lorenzo Zabala jaunaren bahiturari* buruz mintzatzen da. Horretarako, Madrileko egunkari ospetsu batzuetan arazo horri buruz esan direnak ekartzen ditu. Artikulu osoa irakurri ondoren, pregunta modu bi egiten dituala esan geinke: Sekuestratzaileek langileen alde ihardun nahi izan eben, ala ekintza berri eta zaratatsu* bat egitearren aritu ziren? Bahitura jazo* aurretik, no-rainoko elkar hizketa egin eben ugazabek eta langileek, euren arazoak garbitzeko?

ANAITASUNA Bizkaia

Hamabosterokoa.

Zuzendari: Anjel Zelaieta.

Zuzentzaile: Imanol Berriatua.

Idazkola eta banakolaren buru: Josu Torre.

Bulegoak: Jardin Txikerra 1, Bilbao-12.

Inprimatzaile: AMADO, Mazarredo 35, Bilbao-9.

Irarle: RALI, Particular de Costa 12-14, Bilbao-10.

XX. urtea.

D.L.: BI-1.753 - 1967.

«Mintzaira, Aurpegia: Gizon», JAKIN

Bi zatitan egingo da liburu hau. Lehena Piarres Lafitteren aintzin solasak betetzen du, Hiriart-Urruty (1859-1915) idazlearen bizitza, pentsaera eta lanak azalduz. Kazetalaria* lehena izan zela diosku, «Herria» astekarian idazle nagusi, «Le Réveil Basque» eta «Eskualduna» aldizkarietako idazle, batasun bidean ekintzaile, eta abar. Bigarren partean, «Zenbait aurpegi» izenburuarekin, hiru agerkari haietan hainbat politikariri eta elizgizoni egindako Hiriart-Urrutyren kritika zorrotz eta biziak agertzen dira, «Frantziako erreboluzioaz gero, arnas hestuka dato-

Neska bi ebiltzan...

Honetara, neska lagunaren artean sarri* gertatzen dan legez*, elkarrengandik zerbait banantzeko unea heldu jaken. Hau da, mutil batekin lagun edo nobia gisa ateratzeko eretia* heldu jakon Begoñari behinik behin. Bizitzaren bidean hautakuntza hori egin beharrak, krisi bat sorterazi eban neska bien arteko adiskidetasun eta onerizian*.

Baina Begoña, zirt edo zart egiteko unea aurrean ebala eta, mutil horrekin, biok batera, ateratzen hasi zan. Mutil gaztearekin pozik ebulan; eta bere poza, hala nahi ez arren ere, ezin eban Piliren aurrean ostendu.

Pilik, ostera,* bere bihotzarentzat hain suerte onik ez eukala, eta bere adiskide Begoña hain zorionez gainezka egoela ikusirik, bere burua emakumeei dagokien politasun gabe ikusten eban; eta, 21 urteren jabe zalarik, mutil bat harrapatzeko gauza ez zalakoan, inferiortasun haundia sentitzen eban Begoñaren ondoan.

Orduan, bat batera, eta horretarako motiborik itxura batean inolaz ere ez egoelarik, bere adiskide Begoñari aurpegi siku eta arraroa ipintzen hasi jakon, bulego* orduetan batez ere. Begoña mindurik egoten zan, bere adiskidea modu horretan ikusirik; eta gaitz egiten jakon, zer jazotzen zan ulertzea.

Honetara, enpresako ugazaba* ere konturatu egin zan, neska bion arteko harremanak hotzitu eta ilundu egin zirela. Ugazabarentzat, neska biok ziren nahiko presuak; baina, eguneroko lana azkarrago* eta zehatzago egiteko, hareen artean zenbat eta tratu gutxiago izan, hainbat hobe zala uste eban.

Orduan, ugazabak Pili izendatu eban ofizinarean arduradun,* enpresan Begoñak baino denbora gehiago erorian eta. Pilik len bezala lan egiten ihardungo eban; baina ofizinarean martxaren berri eman beharko eutson ugazabari, eta Begoñaren lanak zer moduz joiazen esan ere bai. Honetara, lanak azkarrago* eta zehatzago egiten zitu. Elkarrekin hasarraturik egoenez gero, ez eben hizketan denborarik galtzen, ez eta telefonoz kanpoko adiskideekin berba egiten, Pili beti adi egoen eta. Azkenez, puntualidade handia gordetzen eben, bata zaindaria zalako eta bestea zaindurik egoelako. Neska biok, egunerik egunera, elkarrenganako mutur zorrotz eta berdeagoa jarriaz joiazen; baina enpresa haretako ofizinan beste prestutasun bat nabaritzen zan.

TATANA

eban, **zuen**
eben, **zuten**
ebilan, **zebilan**
ebiltzan, **zebiltzan**
egoen, **zegoen**
egozen, **zeuden**

erorian, **zeraman**
eukan, **zeukan**
eutson, **zion**
jaken, **zitzaien**
jakon, **zitzaion**
joiazen, **zihoazen**

rren gizarte zaharrean, politika eta erlijioa aski nahasiak baitzebiltzan». Iparraldeko hitzak ulertzeko, Joseba Intxaustik Lafitteren ardurapean egindako hiztegi bat agertzen da, liburuarekin batera.

«Marx eta Nazioa», Gotzon M. Garate, ETOR

Oraindik berria den «Marxen marxismoa»ren jarraipen bezala, idazle berak egindako liburu hau agertzen zaiku. Bi zatitan bereizturik, lehenean Marxen bizitza azaltzen dauku: Marx judutar eta Marx aberrigabe. Bigarrenean, nazioei buruzko teoria: Historiaren zentzua, Razionalismoa eta Nazionalismoa, Sozial burujabetzea, Orokortasuna, Nazioartekotasuna, Nazioaren errealitatea, Federalismoa, Nazioa eta Estadao, eta abar. Nestor Bazterretxearen marrazkiak* presentazio on bat ematen dio liburuari.

«Noticias y viejos textos de la Lingua Navarrorum», A. Apat-Etxebarne, S.G.E.P.

Apat-Etxebarne ezizenarekin izenpetzen du Aingeru Irigarai euskaltzainak* bere azken liburu hau. Texto zaharrak argitaratzen ditu, eta komentario txiki bana egiten dio texto bakoitzari. Interesgarria, batez ere bibliografi aldetik argitasunik jaso nahi dutenentzat. Hitzaurrea Julio Caro Barojak egingo du. Eskatzeokotan: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. Urbieta, 55. San Sebastián.

«Lengua Vasca de hoy y de mañana», J. M. Mokoroa, AUÑAMENDI

Aita Justo Mari Mokoroa eskolapioak oraintsu atera berri du, ihaz* Deustuko II. Euskal Antropologi Asterako prestatu zuen txostena.* Harrigarria gertatu zaiku, lan hau, beste mahaikideenaz batera gabe, aparte eta besteena baino lehenago ikustea. Obra hau Auñamendi editorialak eskaini dauku.

Editorearen sarrera zeharo harrigarri batekin, 116 orrialdetako liburu honetan, egilea euskararen batasunaren kontra agertzen da, bat gabe, euskara «hizkuntza» asko direla esanez. Honetarako, beste erdal eta euskal testimonio batzuek gainera, aita Mokoroak Vendryes eta Georges Pompidou frantses xobinisten aipuak* ekartzen dauzkigu, bai eta Menéndez Pidal jaunarenak ere, jaun erdaldun honentzat euskarak zuen balio guztia «interes arkeologikoa» bazen ere.

Honetan ere, zoritxarreko frogatik bitxi bat ematen dauku liburu honek, batasunaren kontra ari direnek, eritzi serio bat eman behar dutenean, beti erdaraz egin behar dutela garbiri ikusteko. Liburuak agertzen dituen argumentuek, bestetik, ez dute inola ere merezi kontra agiterik, beren buruz asko klar mintzatzeko baitira.

Gure ustez, ez da oraingo Ibar hau, orain 36 urte Genio y Lengua izeneko liburu zoragarria idatzi zuena; eta berau, bene benetan, bihotzez sentitzen dugu. Hala ere, beti bezala, eritzi guztiak errespetagarriak direla esan behar dugu.

«Marx eta Erlijioa», Imanol Pagola, IRAKUR SAIL

Gai honi buruz hainbat idatzi da aspaldiko denboretan. Interesgarri deritzagu, idazle bakoitzak gai berezi batzuei lotua egoteari. Asken honetan Imanol Pagolak darabiltzan gaiak hauk dira: Marx eta haren kondairazko ingurua, Marxen erlijio kritika, Marxisten erlijio kritikaren balioa. Horrez gainera, Alienazioa, Jainkoaren kontzeptua, Hegelianismoa, eta beste gai batzuk. Eskatzeokotan: Iñaki Beobide. Ferrerías, 1. San Sebastián.

Nori gabeko eskutitzak

Bilbotik, 1972.eko otsailaren* 29an

Lagun maitea:

Egunero ez dun holako berri pozgarririk jasotzen*. Zorionak bioi. Ahalegina eginen dinat, zuen ezteietara* joateko; baina, hala ere, ezin daunat segurtatu, Gabonak oraino urrun diauden eta. Ba dakin, hemen lanaz nola ibiltzen garen; baina, tira!, egun bat egun bat dun.

Ez dieritzonat gaizki proposatzen dauntanari. Ihaz* Bilbo osoan (eta Donostian ere beste horrenbeste gertatu delakoan niagon), Gabon jaietan denda* eta toki publiko gehientsuetan euskarazko xartelak ikusten zitunan, **Zorionak, Urte berri on** eta holakoak eskainiz. Noski*, baten batek ttikikeria bat dela esan zezaken; baina duda gabea dun, azken urteetatik hona Gabonetako giroa asko eta asko euskaldundu dela horretan. Jendea, euskara kaleetan eta dendetan gauza normalizat ikusten hasi dun; eta berau, munduko gauzarik normalena izan beharko lukeen arren, orain urte batzuk ez zunan hain normala. Aurrera ari gaitun, beraz.

Baina, ongi esaten dauntan bezala, Gabonak urtean behin besterik ez ditun gertatzen. Zergatik ez dugu ahalegin bat egiten, giro horrek urte osoan ere irauan dezan?

Merkatalgoak,* salerosteak, bere legeak ditin; eta saldu beharrak propaganda eta esloganak diakartzan. Hik dionanez, bai udaberrian, bai udan, bai udazkenean eta bai negu osoan, sasoiari sasoikoa, euskal eslogan bana egon beharko luken.

Udaberrirako, oker ez banago, hauk* proposatzen ditun: **Udaberria heldu da, Udaberria ere modaz jantzen da, eta zu?, Udaberri zoriontsu bat, Udaberri epela, jantzi arinagoak.** Neroni, gainera, beste hauk bururatzin* ziaizkidan: **Zer berri? Udaberri!, Udaberri, moda berri, Maiatza lorez eta jantzi dotorez.**

Udarako, aldiz,* hik aipatzen ditunak ezin bikainagoak ditun, ene aburuz*: **Uda heldu da, Uda berotan, gu freskotan, Eskola bukatu eta saria hartu, Uda zoriontsu bat, Udako moda freskoa, Itsaso eta mendirako, jantzi egokienak hemen aurkituko, Eguzki bero, edazu Coca-Cola fresko!**

Ez diauden inola ere gaizki pentsatuak udazkenarako beste hoik*: **San Simon eta San Juda, joan zen uda, Jantz zaitetz epelez, orain gaude udazkenez, Udazken zoriontsu bat, Udazkena, eskolak hasten dira...**

Neguan, betiko **Zorionak** indartuz gainera, ...**eta negua heldu da, Urtarrilean,* preziorik merkeenak, Urtarrileko aldapa, diru guttiz erosketa bikainak, Elurra teilatuan eta Fagor etxean...**

Ez dinat dudarik egiten, hauez gainera, beste hobe batzuk ere —zenbat eta laburragoak hobe— jar daitezkeela. Hik dionanez, hilabete bakoitzari eslogan bana bilatzea ez diagon gaizki asmatua. Gainera, nik uste, euskal poeta ezagun batzuen poesi zati batzuk jar zitezken, Donostiako «Aurrera» kafetegian paperezko zapiakin egin den bezala, sasoiari sasoikoa.

Euskaldunok honelako xartekez horniturik dauden dendetara joaten hasiko bagina, laster asko ikusiko genitizken erakustegi* guztietan ezarrita. Baina beldur naun, bene benetan diosnat, euskaldun dendari askok duten ikusmira llaburra kontuan harturik, ez ote den

Corte-Inglés-ean lehenago holakorik ikusiko, zenbait dendatan baino.

Propaganda egitea ez dun gaitza. Aurrera joango ote?

Nola dago hire neba* Karlos? Karrera amaitu du, ala oraindik zerbait gelditzen zaio? Berriz ere zorionak bidaltzen dauzkizuet bihotz bihotzez hiri eta Mikeli. Esango dauntan hurrengoan, nola bururatu* zaitzuen azkenean ezkontzea.

Agur zintzo bat zuen lagun

XABIERRENGANDIK

NOKETAZKO FORMAK

diagon, **dago**
diakartzan, **dakartza**, dakaz
diauden, **daude**, dagoz
dieritzonat, **deritzot**
dinat, **dut**
ditin, **ditu**
ditun, **dira**
dun, **da**
gaitun, **gara**
genitizken, **genituzke**, geunkez
luken, **litzateke**
naun, **naiz**
niagon, **nago**
zezaken, **dezake**, daike

ziaizkidan, **zaizkit**, jataz
zitezken, **daitezke**, daitekez
zitunan, **ziren**
zunan, **zen**

OSTERANTZEKO FORMAK

daunat, (B) **daunat**, (G) dinat
dauntan, (B) **daustan**, (G) didan
dauzkizuet, **dautzuedaz**, dizkizuet
dezan, **daian**
dion, **dinon**
diosnat, **esaten daunat**
ditun, **donaz (ditun)**
zaio, **jako**
zaitzue, **jatzue**, zaizue



Emakume, gizonezko eta umeen jantziak

Oihal, izare eta etxean behar diren
gainerakoak

Bai emakume eta bai gizonezkoentzako
jantzi aukeratuenak, azken
modara eginak

HURI ZAHARRA

“Casco Viejo”

BILBO

Gure gaurko egoera ekonomikoari buruz (2)

Beste artikulu batean esan genuenez, geure bizitzan eramaten ari garen joera, metafisika hutsa da. Han esan genuen bezala, benetako problemak baztertu egin ditugu, eta hirugarren edo laugarren mailakoak diren arazoetan saiatzen dira gure eztabaida eta lanak.

Jakina, herrian nabaritzen* den etorkizunarekiko nahigabea, joera horren nahi eta nahiezko ondorioa da. Beraz, mentalitate berri bat sortu behar da. Ba dakigu zaila dela; baina bestela (gauzek orain arte bezala jarraitzen badute, alegia*) irtenbiderik ez dago.

Politika ez da «boluntarismo» huts bat, nahiz eta batzuek horrela pentsatu. Gu onak garelako eta besteak gaiztoak direlako, ez da burrukarik irabazten. Politikak errealitatean finkaturik egon behar duelako.

Errealitatea eten gabeko burruka bat da. Burrukan irabazten duena, indar gehiago duena da. Beraz, politikaren oinarria eta sustraia indarren erlazioan dago. Zalantzarik gabe.

Baina zer da indarra? Zertan datza*? Non dago haren oinarria? Dударik gabe, indar produktiboen jabegoan. Indarra eta jabegoa gauza berdinak direlako. Beraz, irabaziko duena, jabegoa duena da. Politika guztia jabegoen erlazioan datza, eta estadia erlazio horren espresioa da.

Crain ohartzen gara, nola denbora galtzen ari garen, guk nabaritu gabe eta garrantzirik eman gabe. Hau hodeietan egotea ez bada, zer ote da?

Geure problema ekonomikoa kontestu honetan sartu behar dugu. Beste egunean ikusten genuen bezala, geure ekonomiaren jabegoa galtzen ari gara.

Dato honek zer esan nahi du? Zalantzarik gabe, gero eta indar guttiago dugula. Beraz, era honetan jarraitzen badugu, pikotara goaz zuzen zuzenean.

Problema honetaz, orain arte ezer gutti egin da. Ba dugu lan aski* geure aurrean. Gure asmo eta lanek horretara zuzenduak egon behar dute. Ba dakit zaila dela, baina, bestela, ez dago irtenbiderik.

Artikulu honetan, puntu batzuk azaldu gura nituzke, besterik ez. Laburrak izan arren, errealitatera eramateko nahiko zailak dira. Xehetasunik* gabeko puntu batzuk dira. Beste baterako uzten dugu, puntu bakoitzaren azterketa bereizi eta xehea.

1. Enpresarioak ohartu egin behar dira problema honetaz, orain arte ez baitute ezer egin.

Puntu honek azterketa sakon bat merezi du. Ezin gaitzke ximplekerietan eror.* Ohartxo batzuk besterik ez, beraz.

Industria berrien falta, nabarmena da. Beraz, konpetentzi bidean jarraitu ahal izateko, enpresarioak sektore aurreratuetan sartu behar dira. Bide hau hartzen ez badugu, gero eta atzerago geldituko gara (gero eta gehiago beste ekonomien azpian).

Inbestigazio bidean hasi behar da, industria berriak sortzeko. Ba dakit, enpresarioek diru gutti dutela horretarako, eta beste mila oztopo dituztela; baina bidea hortik doa.

2. Langileria ere ohartu egin behar da honetaz. Ondo jakin behar baitu, ekonomia pobretuz baldin badoa, bere egoera ere gero eta okerragoa izango dela.

Beraz, langileek salatu egin behar dituzte, ekonomia horrek sufritzen dituen oztopoak.

3. Kooperatibismoari buruz nahiko esan beharra dago, zeren* eta sarritan jendearen artean ez baita batere garbi ikusten, kooperatibek egin dezaketena. Kooperatibek, ordea,* lan ikaragarria egin dezakete.

Kooperatibek industria aurreratuen aldetik jo behar dute, horretarako inbestigazioa bultzatuz.

Kreditoko kooperatibek ba dute nahiko lana, dagoen deskapitalizazioa kontuan harturik.

4. Ez nuke aipatu gabe utzi nahi, gero eta nabarmenago den planifikazio baten falta. Etorkizunerako oztopo haundienetako bat bihurtzen ari da eta.

Sail honetan eginkizun asko sartzen dira: urbanismoa, industria batzuen egokitasunaren azterketa eta abar.

Industria batzuei, ahal diren oztopoak jarri behar zaizkie. Alde honetatik, erakunde* batzuek zerbait egin dute; honek esan nahi du, oraindik gehiago egin daitekeela. Nahiz eta jendeak jaramonik* ez egin, problema hau* (industria zaharrak eta urbanismoa) izugarritzko oztopoak bihurtzen ari dira.

5. Ekonomista gazteen artean, ardura* gutti nabaritzen da problema hauetaz. Egin behar den ana haundia da, eta beraz langile asko behar dira.

Gure egitura* ekonomikoaren ezterketa sakon bat falta zaiku. Sektoreekiko, industriarekiko eta abar. Nahiz eta orain arte egin den lana interesgarria izan, ba dago oraindik nahiko lan.

Euskal ikasleak, daramaten joeraz ohartu behar dira. Sarritan ikusten dugu, nola gure ikasleak hodeietan bizi diren: herriak dituen problemei heldu gabe, eta beren joera sozial inperialismoarekin lotuz.

Ohartzen ez diren erakunde batzuetan ere, ba dago nahiko lan egiteko.

Puntu bakoitzak jarraipen bat merezi duela uste dugu. Beraz, beste batean mintzatuko gara gehiago.

AURTIZ

daramate, **daroe**
dezateke, **daikoe**
gaitzke, **gaitkez**

nituzke, **neukez**
zaiku, **jaku**, zaigu
zaizkie, **jakez**

AGUR batasunaren alde

ETOR editorialak, orain arteko batzuk gipuzkera hutssez agertu arren, hemendik aurrera euskara batuan aterako omen ditu bere liburuak, baina aita Altunaren gipuzkerazko aditzaz.

AGUR aldizkariak, bestalde, editorial honen jokabidea txalotzen duela ikusi dugu. Zorionak guztioi, batasuna aurrera doa eta!

Euskal kantariak ikastolaren alde, Tolosan

Xabier Lete, Benito Lertxundi eta «Oskarbi» taldeak kantaldi bat eman eben, Tolosako «Laskurain» ikastolaren alde, otsailaren* 6an, herri haretako «Leidor» zinemaren.

Jakinduria eta teknologia ekonomian

Ekonomia estudiantzen dutenen artean zientifiko gutti agertzen dela esan liteke; agian,* gai hau buru hotzez aztertzea edozeinentzat gaitza delako.

Astronomo bat, adibidez, ez du gizartearen goseak edo eta politikak zirikatzen. Ekonomista bat, ostera,* bere buruhaustetan ari delarik, mila akuiluk eraginik ari da, nahiz eta ez.

Alferrik izango da hotz hotza, hainbeste begiren aurrean dauden ardura eta beharretatik bere burua ezin du gorde eta.

Honen ondorioa hauxe da: konturatu gabe, jakinduri gaiak aztertzen ibili beharrean, teknologi tresnak esmatzen geratzen* dela.

Hona hemen kasu argi bat. Prados Arrarte-k bere **Introducción al estudio de la economía política**-n (Ekonomia politikoaren estudiorako sarrera), hala definitzen du ekonomia:

«Se podría definir, por tanto, la Economía Política como **el estudio de las conexiones interdependientes de los precios en los diferentes tipos de organización económica**». (Euskaraz: «Beraz, Ekonomia Politikoa honela defini liteke, alegia,* beraz **ekonomi erakunde tipo ezberdinetan dauden prezioen lotura interdependenteen estudioa** dela esanez»).

Eta geroago hala argitzen du bere definizioa:

«...la Economía Política tiene a los precios por objeto de conocimiento, es decir, **a los resultados de una actividad humana, y no a ésta propiamente dicha**». (Euskaraz: (...Ekonomia Politikoak duen ezagumendu-helburua prezioak dira, hau da, **giza ekintzatasuna bera gabe, beronen erresultatuak**»).

Gizonen eginak. Ez, ostera,* gizonen ekintza. Hala ote?

Bat aukeratu baino lehen, eta bide beretik jarraituz, lau definizio —aztergai— ezar ditzakegu:

- eginak (erresultatuak).
- ekintza eta eginak.
- jarrerak (aktitudeak), ekintza eta eginak.
- egiturak* (gizonen jarreraren* eta joeren sorburuak), jarrerak, ekintza eta eginak.

Uste ez duelarik, P. Arrartek ekonomiako gaitik kanpoan lagatzen* ditu enpresak, Keynes eta Marx.

Haren definizioak, enpresen eguneroko ardura* eta eginkizunak ahanzten* ditu: enpresetan denok, edozein estrukturan, ekintza aldatzen eta hobeagotzen saiatzen dira eta.

Keynes baztertzen du, jakina baita, Keynesek garrantzi berria eta haundia eman ziela propentsioei, preferentzietan eta espektatibei, hau da, aktitudeei, hots,* gizonen jarrera eta joerei.

Azkenengo, Marx ez du kontuan hartzen, haren eritziz beraz metaekonomista datekeelako.* Marx, ostera,* ekonomia definitzerakoan, egituretatik hasiko litzateke, ekonomi oinarriak eta iturriak beroik direla esanez. Egituretatik joerak, joeretatik ekintza, ekintzatik eginak aterako litzuke.

Zertan ari da, orduan, P. Arrarte? Lehenago esan bezala, zuzendariei dirijitzeko tresnak egokitzen. Ingelesezt mintzatzen direnek, «a box of tools» deitzen dutena. Ekonomian, egiteko beharra dago. Eta egiteko beharrak jakin beharra azpiratzen du. Politika ekonomiaren nagusi gelditzen da, izanez eta izenez.

Berez, P. Arrarteren definizioak politika ukatzen du ekonomiaren arloan. Zeren,* nola zuzen* (edo oker) daitezke bihar edo etziko eginak, ekintza behinik behin aldatu gabe? Eta nola alda ekintza, ekintzaren jakinduriarik gabe?

Ez da, baina, harritzekoa haren definizioa. Gizarteak, gure gainean eta barruan dagoenak, erresultatuak nahi ditu. Zuzendariek erresultatuen tresnabideak nahi dituzte. Ez dago biharko lagatzerik* eskabidea. Eta biharko lagatzen dugu, jakinduria honek eskatzen dituen erantzunak aztertzea eta ematea.

Honela, ekonomiaren azter-helburua teknologia bihurtzen dugu, egi jakinduriaren orde. Eta ez P. Arrartek bakarrik, gehienok ere bai.

Ni ez nago horretan. Ez nuke egon nahi, hobeto esan. Jakindurietan, jakitea ageri da oinarri bakarra. Jakitea honek, egiten ere jakitea ematen du, edo eman ahal du behintzat. Baina, berez, egiten jakitea jakinduriaren ondorio bat besterik ez da, eta inola ere ez haren muina edo sustraia.

Ekintzari oso lotuta dauden jakindurietan, hau garbi ikustea ez da hain erraza. Hala eta guztiz ere, garia behar izan arren, garisail zati bat behar izaten da inbestigazio hutserako. Hori ez da, zer esanik ez, gosea zabal-tzeko.

Eta halaxe gertatzen da ekonomian ere, ekonomista sakonenek berdin erizten ziotela kontuan harturik. Adibidez, Marxek Kapitala, ulertze aldera, adierazte aldera, bakar bakarrik, eratu zuen. Jakintza hutsaren bidean ibilzen hainbeste orritan.

JENAR GARATE

daitezke, **daitekez**
daude, **dagoz**
ditzakegu, **daikeguz**

zien, **eutsen**
zioten, **eutsoen**
litzuke, **leukez**

BIZKAIKO AURREZKI KUTXAK Bilbon eta Probintzia guztian, laguntzarit zabalena ematen dihardu gizarte preminetarako, eta osakuntza arloan laguntasunik jatorrena.

ZURE DIRUGORDETZERAKO:

Caja de Ahorros Vizcaina

Ofizinarik behinenak: Plaza de España, Bilbao
Telefono 24 36 00 (bide ugariak) - 21 12 90

URIAN, 16 AJENTZIA

Probintziako herririk nagusienetan 70 etxeordezko

Madriko ajentzia: I. C. C. A. Alcalá, 27

Telefono 2 21 49 95

ALFABETATZEAREN

Euskaldunon literatura, urria eta eskasa da. Gure ahozko literatura, ordea,* aberatsa eta zabala da. Euskaldunon kultura, hitzekoa da batik* bat, eta ez letrazkoa. Ba da* zenbait* kondizionamendu historiko, gure egoera hau esplikatu lezakeenik; baina ez noa, gaur behintzat, fenomeno honen kausak aztertzeraz. Aitzitik,* fenomenoen ondorio kulturaleri so* egiten diet. Ondorio hauetarik bat hau litzateke: Hitza dugu euskaldunok kulturazio biderik nagusia.

Urteetan zehar, gaurdaino, apaizen sermoiak izan dira gure kulturazio bide bakarra. Euskaldun gehienok, irakurtzen jakin arren, oso gutti erabili dugu irakurketa, hezibide* bezala. Hitza da gure kulturaren sostengu eta euskarri.* Herri jakintzaren espresiorik zinezkoena bertsolaritza aurkitzen da. Eta bertsolariak ere hitzean sustatzen dute beren jakintza.

Lehenengoan esaten nuenez (ANAITASUNA 227), hizkuntza errealitatearen lehen xedatzea,* konprenitzea eta teorizatzea da, hots,* hizkuntza errealitatearen lehen arazionalizatzea da. Euskaldunon jakintzarik benetakoena geure euskara dugu. Zeren* eta hizkuntzaren bitartez espresatzen baititugu, geure munduarekin eta geure gizarte inguruarekin ditugun harremanak. Bestalde, hizkun-

tza, euskara, geure baitarekin eta beste gizonekin ditugun harremanen agerpen denez, euskal kontradizioen agerpen dugu.

Rikardo Arregik, euskaldunen alfabetatzearen planifikazioa egin zuenean, «letraren» ardua zuen batik* bat. Hau da, euskaraz eskribatzen eta irakurtzen ez genekielarik, kulturazio literarioari eman zion garrantzirik handiena. Noski,* hau oso inportante eta premiazko zatitza dut, eta, gainera, beharrezko da. Baina, agian,* alfabetatze literario honek ba du zenbait peril, akats eta ondorio lanjeroso.* Hain zuzen ere, eta gure analfabetismoa arrunta* eta oinarritzeko denez, ezin gaitzake hasi behar erremedioak moldatzen; aitzitik,* behe behetik hasi behar dugu, azkarrago eta zuzenago joatearren.

Euskara euskaldunon jakintzaren oinarri denez, euskararen arloan finkatu behar dugu geure alfabetatzearen sustraia. Alferrik ikasiko dugu euskaraz eskribatzen eta irakurtzen, baldin lehenik «hitz egiten», hots,* hitzak fabrikatzen ez badakigu. Bai politika eta bai sozial alorrean,* euskaldunok hitz egiten ez badakigu, txantxetako idazketa eta irakurketak izanen dira gureak. Gaur euskaldunok mutuak gara, eta alfabetatzeak hitz egiten irakatsi behar dauku.

MARKESAREN ALABA

Zeruak eta lurrak
egin zituana
memoria argitzera
atzo neregana.
Esperantza ba daukat
zedorrek emana,
kunplitzeko dedala
desio dedana.

Markesaren alaba
interesatua
marifueruarekin
enamoratua.
Deskubritu gaberik
bere sekretua
amoriua zeukan
barrena sartua.

Hala dispuniturik
jarri ziran biak
kartaz ententitzeko
elkarren berriak.
Formalidariakin
jartzeko egiak
baifia etziran lo egon
amaren begiak.

Amak esaten dio:
Juanita neria
galdu da, diotenez,
Antonio Maria.
Nik bilatuko dizut
beste bat hobia,
mayorazgo interes
askoren jabia.

Hau da lehendabiziko
esan zenuana:
zer da musikarekin
onratzen dutena?
Markesaren alaba
kalian barrena
esposario zala
hark behar zuena.
Penarekin leherturik
Antonio hil zan,
akonpañatu zuen
Juanitak eleizan.
Nahitasuna ba zion,
esan dedan gisan,
geroztikan etzuen
osasunik izan.

URBETXINDORRAK

AMA EUSKERA GAIXOA

Hitzak: Iruzubi

Egun guztia zutzaz oldozten
igaroten det nik, ama,
eta arratsean ezin lo egin
hiltzera zoaz, hau lana.

Jaikitzen naiz, ba, laguntza billa,
laxterka pozik zugatik,
bainan alperrik, nere amatxo
ia hiltzera, gugatik.

Bular gozoa ase zenduan,
semeak zaitu ukatzen,
hau oinazea ama maitea,
negarrez nago urtutzen.

Txikitandikan beti izan dizut
bihotzeko nahitaoua,
horretxegatik ia ga du det
zugaitikan osasuna.

MAITASUN BILA ERROMES

Bidazlari ibil ta ibili egoarririk,
ez du euki maite ondorik,
beti ameslari etsi ezinik.

Koblari zaharrak jarraitzen kantari,
maitasun ondorik herririk herri,
bere egarririk ase ezinik.

Itxaropenak ahuldurik,
bihozkadak bareturik,
ames egin eta kantari
esan ezun kutunari.

NAHI NUEN KANTATU

(B. Zelhabe)

Nahi nuen kantatu,
alegera partitu,
bainan zer bihotz mina
ene baitan da piztu.
Ene bihotza nola
nola daiteke kontsola?

Norat hoa untzia,
norat utziz Frantzia?
Norat hola daramak
orai nire bizia?

Ba goazi tristeki,
Ameriketan kausi,
ustez gure gozoa,
esperantza zoroa.

Zerek nau lilluratu,
hola zerek engainatu?
Egiazko onak utzirik
itzala dut hautatu.

Eskual Herrian sortzen,
Ameriketan hiltzen.
Ai, zer sorte dorpea
orain dutan bilatzen!

Eskual Herri maitea,
Herri paregabea,
hiltzea da neretzat
hi gabe bizitzea.

Adio, ama maite,
galtzen zaitut zu ere.
Ni zugandik urrunduz,
zenbat biziko zare?

Egin dutan botua,
baldin betetzen bada,
laster itzuliko naiz
ama ona, zuregana.

PEDAGOGIA

Hitza ez da ahoko hortzetik zintzilik dagoen zerbait. Hitza praxi bat da. Benetako hitzak, praxi denez, mundua eraz aldatzen du. Praxi gabeko hitza, ordea,* mutu eta doinu arrunt* gertatzen da. Ekintzarekin batera doan hitza, iraultzaile* eta operatiboa da. Ekintzarik gabeko hitza, ostera,* «bla-bla-bla» bat besterik ez da. Baina hitza, benetako azterketa eta analisisa ez bada, ekintzakeria, aktibismo agorra da.

Gure analfabetismoaren lehen maila, gure mutu izaitean datza.* Hizkuntza bat ba dugu, baina gure euskara ez da oraino funtzional eta iraultzaile. Zeren* eta euskara, ortze* mitiko batean finkatuta dagoelarik, ez baita eragile eta dinamiko.

Eguneroko hizkuntza hauzitan eta krisian jarri behar dugu, hizkuntzan gorderik aurkitzen diren pentsakera oker, uste arnegagarri eta fede desegokiak aztertuz. Alfabetatzearen lehen eginbeharra eta jomuga,* hizkuntzaren azterketa kritikoa da. Geure eguneroko hizkera problematizatu egin behar dugu. Honela, gure eguneroko bizimoldeak kritikagarri agertuko zaizkigu; eta kritika honetan datza* benetako kontzientziaren iturburua.

Kontzientziaren sostengua hizkuntza dugu. Euskal kontzientziaren euskarria* euskara dugu. Halaber,* gizarte klase bakoitzaren kontzientzia haren hizkuntza berezian oinarritzen da. Beraz, euskara kritikiko baten lortzea, kontzientzia kritikiko baten lortzea da.

Hizkuntzaren kritika, elkar hizketaren bitartez ardiets* daiteke. Taldeko elkar hizketaren bitartez, hitzak kritikagarri bihurtzen dira. Taldean eta elkarrekin hitz eginez, hitzek zentzu berria hartzen dute. Hitzak bortxaturik eta garbiturik gertatzen dira.

Jakintza, lotzaile edo askatzaile izan daiteke. Jakintza lotzaile baten funtsa* mitologizazio batetan datza. Jakintza askatzaile baten guna* desmitologizazio batetan datza. Liburuetan eta hitzaldien bitartez jasotzen* den jakintzak, lotu egiten du gehienbat. Irakurlea edo entzulea ez da libre, «eskuratzen» eta «ematen» zaion jakintzaren aurrean. Ordea,* taldeka eta elkar hizketan geureganatzen dugun jakintza, kritikiko eta askatzaile da; eta honetan datza heziketa* eta jakintza askatzailearen oinarria.

Geure artean dugun hezibide* eta kulturazio metodoa

irakurketan eta entzutean sustraiturik dago. Eta heziketa metodo hau lotzaile eta alienatzaile izan daiteke. Gizartemolde orok* ba du bere heziketa moldea. Sarrienik,* edo beti, klase dominantearen arauetaz taxaturiko pedagogi moldea erabiltzen da gizarte guztietan. Beraz, esan daiteke, produkzio molde bakoitzari bere pedagogi moldea dagokiola. Eta guk ba dakigu, gaur Euskal Herrian zein den klase eta produkzio molde dominante eta nagusia. Kapitalista, hain zuzen.

Hizkuntza, gizonen arteko erlazioen agerpena da. Nolako harremanak, halako hizkera (gizarte maila desberdinean, hizkera berezia). Euskal langileriaren alfabetatze kanpaina, honetan sustraitu behar dugu: gaurko euskarak, Euskal Herriak gaur eta hemen dituen behar konkretuei erantzun behar die; eta orduan bai izanen dela euskara kulturazio bide jator eta egokia.

Beraz, hitzaren gain, berbaren gain oinarritu behar dugu alfabetatzea. Bai irakurketak eta bai idazketak «hitzaren» pean eta honen morroi izan beharko dute. Geure literatura guztia ere gaurko hitzegite honen zerbizuan ikuspegitu beharko dugu.

Baldin lekzio, sermoi eta doktrinen bidez analfabetua kulturatu nahi badugu, oker handi bat eginen genuke. Zeren,* horrela, analfabetua hartzaile soiltzat jotzen baitugu, jakintzaz bete beharreko ontzi edo kaiku bat bezala. Eta, honela, ez dugu kontzientziarik askatu eta esnatuko.* Analfabetuari, berak berez «dakien» jakintzaz jabe erazi behar zaio: hortxe datza alfabetatzea. Nehork* ez dio inori irakasten; aitzitik,* gizonak beren artean eta elkarren kontzientziak kontrastatuz konturatzen eta kulturitzen dira. Kontzientzia ez zaio inori irakasten. Kontzientziaz jabe erazi egiten zaio, baina ez irakatsi. Kultura literarioa laguntzaile bat da; baina berez ez da jomuga.*

Aurrerantzeko lanetan saiatuko natzaitzue, hemen esandakoaren alderdi pedagogiko eta metodologikoak agertzen.

LUIS HARANBURU-ALTUNA

dauku, **dausku**, digu
die, **dautse**
diet, **dautset**
dio, **dautso**

gaitzke, **gaitkez**
lezake, **leike**
zaio, **jako**
zaizkigu, **jakuz**



DANTZA TOKI GOXOA

Igandez ta jai egunez: 6 tatik 11.ra
Astegunez: 7.tatik 11 ra.

KAFETEGI **AMALUR** RESTAURANTA

Irurzun aldea haunditzen

Orain dala lau bat urte, «Aristain» etxeak 900.000 m.² erosi zituan Irurzun aldean, Nafarroan. Orain, 6.000 milioi pezetako laguntza jaso* dau Estaduagandik, esandako lurralde horreetan txapa magnetikoak egiteko lantegi bat muntatu daian. Lantegi hori munduko 10 hoberenatarikoa izango ei* da, eta 800 bat beharginek* lan egingo omen* dabe bertan.

Bengoa Zubizarretak seme bat

Guadalupe Barañano andreak, Jose Luis Bengoa Zubizarretaren emazteak, seme bat izan berri du otsailaren* 9an. Izena Asier jarriko ei* diote. Zorionak guraso bioi, eta Jose Luisi segi dadila gogor «Egunon, amigos» sailetik euskaraz idazten, *La Gaceta del Norte* egunkarian.

Erradio-aktibitatearen problemak

Erradiazioen efeko fisiologikoak ezagutzeko, toki berezi bitara joan gitezke: edo fisikarien laboratoriora eta hospitale batera. Ni neu bigarrenera zuzendu naiz, elkar hizketa bat zertzeko asmoz. Han, neska gazte bat dago nire zain; medikua da bera, eta erradiazioen gorabehera fisiologikoak azalduko dauzkit. Guztiz jatorra da. Bera prestatu zitzaidan entrebistarako, Iturribide kalean ukan genuen* txikiteo batean.

— Honez gero, ez hintzela etorriko uste nian. Hamarrak eta hogeituk eta.

— Hamarretan esan neunan, baina zirkulazio astun honekin ez diagon zer eginik.

— Tira, goazen barrura.

Hospitaleak herri aislatu bat dirudi. Jantzi zuriak toki guztietatik, eta noizean behin karro arraro bat, zuria hau ere, gaixoren bat eramanki.* Gela batean sartzen gara, eta han, mahaiaren alde bietara gaudelarik, magnetofonoa jartzen dut martxan.

— Gaur erradiazioen efeko kaltegarriak azalduko dauzkiat. Honekin, beharbada, beldurtu egingo haiz pixka bat; baina gero, erradiazioen aplikazio mesedegarriak ikusirik, haien garrantziaz konturatuko haiz eta beldurra ere kendu egingo zaik.

— Has haiteke, nahi dunanean. Prest niagon.

— Ez dauat fisikazko kurso bat emanen; baina, dakianez, erradiazio mota ezberdinak diaudek: alfa, beta eta gamma bereziki.* Guzti hauen efekoak berba batez esatekotan, materia ionizatzen dutela esango nitek. Ionizazioaren kausaz, izpiek* molekula apur zitzakeate, eta, sorturiko zatiak batzen ez badira, molekula hoik* galdu egiten dituk.

— Molekula galtze hau inportantea da?

— Ba dituk molekula batzuk, bizitzarako garrantzi handikoak direnak. Gainera, zatiak pozoinak izan zitezkeek.

— Efekoak, berdinak dira gorputzaren parte guztietan?

— Ez eta hurrik eman ere. Eun* batzuk guztiz gorrak dituk; beste batzuk, ostera,* ahulak.*

— Zeintzuk dira eunik gogorrenak?

— Azala eta giharra. Hauek erradiazio handiak behar ditiate gaixotzeko. Ahulena, aldiz, sexo organoak eta begiak dituk.

— Nola agertzen dira sintomak?

— Azala, erreta balego legez* agertzen ziaiguk. Hondartzan gaudela, egukiak erretzen gaituenean, izpi mota batzuen bitartez erretzen gaitik.

— Gauza bat. Zer gertatzen da odolean?

Han ere, erradiazioen kausaz, bikor gorrien (leukozitoen) numeroa gutitu egiten duk. Horrela, leukemia diatork.

— Lehen esan dautananez, sexo organoak ditun ahulena. Esplika hezake zerbait horretaz?

— Erreproduzio arloan fenomeno arraroak diaudek. Geneetan mutazioak izan zitezkeek, eta orduan herentzia aldatu egiten duk.

— Hortik aparte, ba dago beste problemarik?

— Dosi handia harturik, esterilizatu egiten dituk pertsonak. Bestalde, haurdun daudenen artean abortoen portzentua goratu egiten duk asko, bai eta jaioberrien deformazio fisiko eta mentalena ere.

— Estaduek ez dute legerik jarri horretaz?

— Bai, erresuma* gehienetan, galerazita diagon emakumeen lana erradio-aktibitate zentroetan, haurdun direno* behintzak. Bai eta mutil gazteena ere.

— Besterik gogoratzen zain?

— Bai. Amaitzeko, zerbait esan behar dauat. Askok, hau entzun nahiz irakurri ondoren, beldurra hartuko zioate erradio-aktibitateari. Horregatik, guztiz negatibo bezala ager ez dadin, hemen hospitalean bertan erradio-aktibitateari ateratzen zaizkion aplikazioak azaldu nahi neuzkeek. Baina, horretarako, beste egunen batean etorri beharko huke.

— Interesgarri izanen dun. Noiz etor ninteko?

— Datorren astean, ordu berean.

— Ondo. Mila esker eta datorren asterarte.

— Agur.

J. R. ETXEBARRIA

TOKETAZKO FORMAK

diagok, **dago**
diatork, **dator**
diaudek, **daude**, dagoz
ditiate, **dituzte**
dituk, **dira**
duk, **da**
gaitik, **gaitu**
nian, **nuen**, neban
nikek, **nuke**
ziaiguk, **zaiku**, jaku, zaigu
zioate, **diote**, dautsoe
zitezkeek, **daitezke**, daitekez
zitzakeate, **ditzakete**, daikeez
NOKETAZKO FORMAK
diagon, **dago**
ditun, **dira**
dun, **da**
niagon, **nago**

OSTERANTZEKO FORMAK

dauat, (B) **dauat**, (G) **diat**
daude, **dagoz**
dautan, **daustan**, didan
dauzkiat, **dauadaz**, dizkiat
dauzkit, **daustaz**, dizkit
gaude, **gagoz**
gintezke, **geintezke**
hezake, **heike**
neunan, (B) **neunan**, (G) **ninan**
neuzkeek, **neuskizak** (**neuskezak**),
nizkiake
zaik, **jak**
zain, **jan**
zaizkio, **jakoz**
zitzaidan, **jatan**

Abadiñoako jaialdirako baimenik ez

Euskal Herriko zenbait* egunkaritan hala iragarrita* egon arren, ezin izan da Abadiñon kantari eta bertsolarien jaialdia ospatu otsailaren 13an, ez baitzan horretarako behar dan baimenik lortu.

Zuberoko maskaradak

Otsailean,* Zuberoko hiru herritan egin izan dira maskaradak: 13an Barkoxen, 20an Altzain, 27an Altzürükün. Eta martxoaren 5ean Lakarrin izango dira.

Aditzari buruz gauzak argiro (4)

Mende* honen hasieran, aurreko artikuluan aipatu genuen bezala, bizkaitar eragin politiko eta soziologiko hura* iparralderaino ere sartu zen, neurri ttipian bazen ere.

Gipuzkeraren berpiztea eta nagusitzea —agian,* gerra ondoko hizkuntz zapalkuntza bertan ttipittoagoa izan zelako— gerra bukaturik hasi zen; beraz, oraintsuko fenomeno bat dela esatera ausartuko* nintzateke, ia ia. Horra hor, 200 urte hauetako gipuzkoar nagusitasun literarioa zertan gelditzen zaikun. Gipuzkera idatziak, egia da, 200 urtetako historia bat du; baina horrek ez du esan nahi, denbora guztian euskalki* nagusia izan denik, la purterak dituen 400 urtetako historiak, arrazoi berberagatik, lapurtera klasikoak 400 urtetako nagusigoa ukan* duela esan nahi ez duen arrazoi berberagatik.

Bestalde, euskal literatura, % 90ean, honez gero ia guztiz agorturik eta berriro ere argia ikusiko ez duten erlijio liburu edo debozionarioak izanez, zeren izenean aipa daiteke hoiener literatur garrantzia?

Ba dakigu, berriz publikatzekotan, kalitate ezagun bateko obra klasikoak izan ezik, ez direla berriz euskal liburu zaharrak argitara emango. Galdere, gehienontzat eta publiko normalentzat liburu zahar guztiak ezezagunak direnez gero, hauxe dateke:* zerk du garrantzi gehiago, nolakotasunak* ala zenbatusunak*? Erantzuna ez da gaitza.

Egitada guztionagatik, nik uste, ez dakusat batere arrazoirik, gipuzkera «hutsaren» gainean halako «arrazoi soziologiko» hoik* ontzat hartzeko.

Ba da, noski,* beste arrazoi bat, gure gogoz kontra, orain lapurteraren alde gaudenon kontra aipatua, hots,* guk ere, lehen, gipuzkeraz idazten genuela, bizkaitarrak izan arren. Noski, batasunera joan nahirik, bizkaieratik gipuzkerara iragan* ginen, berau hura* baino egokiagoa zelakoan. Baina, lapurtera ezagutu bezain agudo* —eta neronek orain gutti ezagutu dudala aitortu behar dut, lehenago gure artean lapurterazko libururik bat ere salgai ez zegoelako—, gipuzkeratik lapurterara iragan ginen, oraingo euskaldun berri asko bizkaieratik, zuzen zuzenean, lapurterara pasatzen diren arrazoi berberagatik. Ez dut uste, noski, oso joko garbia dela gure lehengo inorantzia harma gisa aurpegira jaurtikitzea.

Eta azkenez, euskararen usadiora bagoaz, Lapurdin eta Nafarroa Beherean guti mintzatzen bada, ez dut uste Tolosako edo eta Donostiako kaleetan askoz gehiago entzuten denik, telebistak, irratiak eta eskolak egunero obraturiko zapalkuntzak euskarari batere gaztelurik edo eta gordelekurik uzten ez diolako, eta haurren artean guttiago, gainera.

Euskararen batasuna, bestetik, ez da gaur euskaraz mintzatzen diren haur eta gazteentzat «bakarrik» egiten, BIHAR mintzatu behar duketenentzat* baizik; eta hauk,* Gipuzkoan ezaze, baizik eta Bilbon, Nafarroan eta Araban egonen dira gehienbat, eta berauentzat, bistan dago, Gipuzkoako arrazoi soziologikoek ez dukete* balio. Larresorok berak egia esan zuen *Eibartarrari* egindako artikuluan. Gurea, etorkizuneko Euskal Herri berri baten aldeko burruka bat da, Euskal Herri zaharrak, euskalkietakoak,* ia guztiz berea egin duelako.

Konforme gaude guztiok, hala ere, bizirik dirauen* euskarari eutsi behar zaiolakoan; eta horretan, hain zuzen ere, ari gara. Baina ez ote zaie gipuzkoar eta gazte

gehien gehienei lapurter modernoak bezain arrotz gipuzkera «batu» teoriko hori gertatzen ala*? Ala ez dira gaur egun gipuzkera «mintzatuan» —herriak, herri analfabeto gehienak, ezagutzen duen bakarrean— *dizkigu* bezain arrotz *dauzkigu*, *berak* pluralerako, *digu* edo *diguz* baldin badio? Eta *dizkio* gabe, herriak Gipuzkoan *diozta*, *dirautza*, *diozka*, *dizka*, *dizko* eta *dio* esaten baldin badiu, bai eta *deutsoz* eta *ditio*, eta *ikusit* zaitut gabe, *ikusit* *dizut* edo *deutsut* edo *dotzut*? Hitz batez, gure hizkuntzaren egiazko herri egoera zeharo kaotikoa baldin bada —eta alfabetatzaileek ba dakite zerbait honetaz!—, zertarako balio du, azken batez, forma hauk* hoik* baino hedatuagoak* direla esatea, aitonengan egia zena, gaur, zoritxarrez, holaxe ez bada?

Eta etxea, etxe osoa, oinarrietatik egiten hasi behar badugu, herriari bere hizkuntzaz baliatzen irakatsi behar badiogu, hobe da etxea behar den moduan egin dezagun, eta hobe dukegu* bide* den moduko hizkuntza bat irakasten has* bagaituz.

Guk nahi duguna zera da, gipuzkera ailegatzen ez deneko puntuetan —eta hoiexetan bakarrik!— lapurtera hartzea, benetan Euskal Herri osoarekiko batasun bat egiteko, ez hegoaldekoontzako konponketa soil bat.

Azkuek Espainia aldeko euskalkietarako batasun bat proposatu zuen, Gipuzkera Osotua izenez, eta bere saioan porrot eginik gelditu zitzaion; ea honetan, probintzialismoak eta keria guztiak alde batera utzirik, iparraldeko anaiei kasu gehiago egiten diegun!

XABIER KINTANA

dakusat, **ikusten dut**
dezagun, **daigun**
diegu, **dautsegu**
gaude, **gagoz**

zaie, **jake**
zaiku, **jaku**, zaigu
zaio, **jako**
zitzaion, **jakon**

hijos de j. bilbao goyoaga, s. a. - deusto-bilbao
Ribera de Deusto, 1 Apartado 1300

“Langileria historian zehar”

Liburu interesgarri bat

Gure euskal bibliografia aberastuz doa. Gure editorialak polito ari zaizkigu lanean. Eta, egia esan behar badut, aspalditik nengoen, ETOR-ek agindu zeukun liburu hau irakurtzeko asmoz.

«Gogorra, latza, mingarria, langileriaren egoera. Ge-roztik zenbait* gauza aldatu dira; baina, ikusiko dugunez, burruka eta indarrari eskerrak lortu diren aurrerakadak dira,» esaten dauku liburuaren egileak. Egia da Ugaldek dioena; baina beste gauza bat ere ikusi behar da: giza historia osoa burruka izan dela, eta, lortu diren gauza onak burrukaren bidez lortu badira ere, gauza okerrak ere burrukak sortu dituela. Benetan, ezin genezake gizonaren historia gogorra, burruka batean pentsatu gabe. Burruka horretan, langileriak parte haundia izan du; eta orain aipatzen dugun liburu honek langileriaren burrukaren sintesi bat eskaintzen dauku.

Ez dut uste, Mikel Ugalde idazle gazteak presentazio haundiegirik behar duenik. Gure Herriko zenbait aldizkari oso entzute haundia duen idazlea dugu. Gainera, haren idazlanak oso gustora irakurtzen diren hoietakoak dira.

Beraz, idazle gazte baten eskutik datorkigu gure gaurko liburua.

Aurkibideari begiratzen badiogu, oso gai interesgarriak ikutzen dituela esan daiteke. Inglaterratik hasten da, Frantziarekin jarraitzen du, eta, ondoren, teorikoen dotrinak eta zenbait sozial gertakari aztertzen ditu: Saint Simon, Proudhon, Kartismo deritzan mugimendua, Marx, Engels, 1848.eko iraultza* eta lehen Internazionala. Espainiako gorabeherak arakatzeko* ditu gero, eta, azken aldera, Euskal Herriari dagozkionak ikutzen.

Holako aurkibide batek nahi eta nahiez bultzatzen gaitu irakurtzera, gaia interesgarria baita.

Bi atal izango dituen liburu baten lehen zatia da gaur aipatzen ari garen hau. Bigarren Internazionalerarte aztertzen du liburu honek.

Ba zen ordua, honen antzeko libururen bat gure artean ikusteko.

Ondo egina dagoela uste dut. Akatsen bat aipatzekoan, beraren eskematismoa aipatu beharko genuke. Baina, jakina, honelako lan batean hain gai zabala hartzen denez gero, ez da harrizkoa liburuari eskema usaina hartzea. Lanerako laguntza bat izan nahi du liburu honek. Langileriaren historia aztertu eta estudiatu nahi dutenentzako tresna bat izan gura* du. Beraz, beraren eskematismo hau birtute bat ere izan daiteke.

Sintesi bat eskaintzen dauku liburuak, oso ederki egindako sintesi bat. Gainera, gehiago sakondu nahi duenak, ba du, liburuaren azken aldean, bibliografia bat.

Beraz, gure Herriari langileriaren historia ezagutu nahi dutenek hemen dute lagungarri bat. Nire ustez, zerbitzu on bat eskaini dio Euskal Herriari liburu honek.

Eta, Euskal Herriari gagozkionez, aipa dezagun, liburuak gure Herri honen historiari buruz esaten daukuna. Labur esanda daude esan beharrekoak; baina, beraren

laburtasunean, ba dirudi, oraindik interesgarriago egiten zaikula.

Lehenbizi gure Herriko gizamailen problema azterten du, eta gero gure historiaren zenbait puntu ikutzen: burgesiaren joera edo joerak, gizarte egiturak,* Zamakolada, Azkoitiko zalduntxoak*... Beharbada, asko ohitu gabe irakurlea harritu egingo da, zalduntxo hauen joera ikusteaz; baina liburuak nahiko garbi adierazten dauku zernolakoak ziren. Horregatik, «historian zehar, agintedun euskaldunek era berean jokatu balute, beste kukurruku batek joko zukeen» diorean, arrazoi haundia duela uste dut.

Beraz, liburu interesgarria ETOR-ek eskaini daukuna. Bigarren atala noiz aterako duen zain gelditzen gara. Batez ere, gure Herriko langileriari buruzko azterketa gerorako utzi duelako. Gure Herriari langileria sortzen ari zen garaian bukatzen baita liburua. Industriadaren hasiera aipatzen du; baina oraindik urrun dago gure langileria bere betetasunera ailegatetik.

Euskarari dagozkionez, Mikel Ugalderen luma trebeak irakurleari lana asko erraztu dio. Euskara polita eta erraza erabiltzen duela esan dezakegu, nahiz eta batzuetan azken mementoko begirada zuzentzaile baten falta nabaria* izan. Berdin gerta dakioko zenbait «a» organikori buruz. Baina hau* denak oso akats tipiak dira, liburuaren osotasunari begiratzen badiogu.

Eta, amaitzeko, Ugaldek hitzaurrean esaten duena aipatu nahi nuke. «Akatsez beterikako lana dela ohartzen gara, bai mami eta bai idazkera aldetik ere. Baina, espezializatuek euskal arloan lan egiteari ekiten ez dioten bitartean, ez dugu ezerean aurrerapenik lortuko», dio Ugaldek. Honetan ere, gure Herriko giroa aldatuz doala aitortu behar dugu. Euskaldun asko ari baitzaiku Unibertsitatean ikasten. Ba dabil gazteria, gero lan sakon bat egiteko asmotan. Euskal zaletasunez botetako gazteria. Eta gazteria hau izango da, gero espezializatuen saila osatuko duena.

Gure itxaropen hau, egia bihurtuko da laster. Bitartean, zorionak eman behar dizkiogu bai Mikel Ugalderi, bai eta ETOR editorial gazteari ere, azken bolada* honetan oso lan interesgarriak argitaratzen ari delako.

HORMAETXE

balute, **balebe**
dakioko, **daitekio**
daude, **dagoz**
dezagun, **daigun**
dezakegu, **daikegu**
dio, **dautso**
diogu, **dautsagu**

diote, **dautsoe**
dizkiogu, **dautsaguz**
genezake, **geinke**
zaiku, **jaku**, zaigu
zaizkigu, **jakuz**
zeukun, **euskun**, zigun
zukeen, **eukun**



Loroñotarrak eta "Oskorri" taldekoak Bilbon

Oraindik neguaren erdian gagoz, eta hotz egiten dau. Bizkai aldeko zenbait* enpresatan, langile burruka eta arazoak ugari dira. Enpresa jabeak harrokeria gehiegi gabe dabilta; eta ekonomi bizitza tristerik abiatzen dala entzuten da. Ofizialki, peoi bakoitzak 157 pezeta irabazten ditu egunero. Azken egunotan hainbat jende sartu dabe gartzelara; baina, etxe batzuetako negarra gorabehera, jendea bizirik bizi da, benetako mirariak eginez. Bilbo aldean nahiko poz sentitzen da, «Solución Sur» dalakoa zabaldu ebenetik. Barakaldo alderantz, hala ere, izugarritzko kotxe hilarak egiten dira, txofer guztien odolak irakiten jarriz.

Giro honen barruan, Bizkaiko Akordeonisten Elkartasunak eta «Oskorri» taldeak, biok batera baina bakoitzak bere bidetik, jaialdi bat eman eben «Santiago Apóstol» ikastetxeko teatroan, otsailaren* 13an, goizeko 11etan.

Nahiko jenderik bildu zan. Akordeonistak pozik ei* egozen, ez ei eben hainbeste entzulerik behin ere izan eta. 300 bat entzule izaten ei ditue, hilabetero ematen dituen kontzertuetan.

«Oskorri» taldekoek propaganda ona egin dabe, hainbat gazte erakarri baititue teatrorra, ia ia bete arte.

Presentadore zereginak Francisco Javier García jaunak egin zituan. Bere betaurreko ilunen atzean, gorputz txiki eta ondo konpondu baten jabe, buruz ikasitako hitz bi euskaraz, eta beste enparaduak* erdaraz bota zituan, beti ere gauza samurrak, elezuriak,* kasikan sermoi kutsudunak esanez. Baina, honelako kasuetan legezkoa dan bezala, txukun agertu zan, gauza txukunak txukunkiro esanez.

Josu Loroñoren neska-mutilak —Bizkaiko Akordeonisten Elkartasunak haren zuzendaritzapean baitihardu— bata bestea baino dotoreago agertu ziren. Arropa berdin eta egokiekin egozen, eta joan-etorri guztiak modu akonpasatu eta ondo ikasian egiten zituen. Boccosi, Deiro, Wagner, Hyde, Jarre, Sorozabal, Loroño eta Vallejos jaunnen musika jo eben, hutsik egin gabe, moduz, aire finez, Josuren makilatxoak markatzen eban erritmoari artez

jarraituz. Forma guztiak ondo gorde zituen, eta soinulari onak direla ondo frogaturik* utzi eben.

«Oskorri» taldekoek ez dakie formen berri hain handirik. Aldran* eta pauso narrazez* agertu ziren ezenariora. Nobedade bat ekarren: kontrabajo ikaragarritzko bat. Zoritxarrez, lehen partean ez jakon gauza handirik entzun, ez baiteukan mikrofonorik.

«Oskorri»koek gauza asko esan euskuezan. Moduak zerbait hobeto ikasi ditue, baina oraindik ba dabe zer ikasirik Loroñotarrangandik. «Kexa eta promesa» eta «Agotak» betiko itxura grabe eta serioan atera zituen. «Musuaren galdatzea» eta «Gure astoa Balaan» oso pozik entzun zituan publikoak. Kantuen eta hitzen esangurara, besteetan baino hobetoxeago azaldu eben, ez guztiz argi eta azkar baina.

Jende gaztea pozik samar gelditu zala uste dogu. Kanpoan hotz egiten eban, eta etxeetan igandeetako atsedeen laburra.

DONAGARAI

dabe, **dute**
eban, **zuen**
eben, **zuten**
egozen, **zeuden**
ekarren, **zekarten**

euskuezan, **zeuzkiguten**,
zizkiguten
gagoz, **gaude**
jakon, **zitzai**on

Kargu berriak «Gerediaga» elkartean

Durango aldeko «Gerediaga» elkargoak elezioak izan ditu, Abadiñoko Astolan, kargu berriak izendatzeko. Hona hemen zelan gelditu diren karguok: Lehendakari Jose Inazio Alberdi Olabegoia, ordezkari Juan Mari Zubia, idazkari Jose Luis Lizundia. Hogeit bat bokal ere hautatu izan dira, eskualdeko herrien izenean.

Ezkontza Berrizen

Otsailaren* 8an, Berrizen ezkondu izan dira Matias Oregi eta Amaia Gorroño, orain arte herriaren alde kementsu lan egin daben gazte jatorrak. Matias, Herri Gaztedin ibili izan da aspaldiko urteotan; Amaia, berriz, ikastola lanetan. Seguru gagoz, elkartze hau herriaren alderako aberasgarri izango dala.

Transportes "ANAITASUNA"

- Trasporte kooperatiba euskalduna, gaurko egunak eskatzen duen modukoa.
- Karga osoak nahiz paketeak, peninsula guztirako.
- Euskal Herriko komertzio eta industriaren zerbitzuan.

TRANSPORTE ARAZOAN LAN EGITEN DUTEN KAMIOIDUNEI:

- Egin ditzagun enpresa haundiagoak, geure interesak zaintzeko eta irabaziak gehitzeko.
- Bakarrik ezin duguna, elkartuta egingo dugu.
- Gure gaitz guztien sustraia, nor bere aldetik ibiltzea da.
- Elkartu ditzagun geure indarrak.
- Sartu zaitez «ANAITASUNA» trasporte elkargoan.

Hona hemen zuzenbideak

PAMPLONA
Pico de Ori, 2
Tel. 23 92 40

BEASAIN
Avda. Navarra, 47
Tel. 89 18 37

SAN SEBASTIAN
General Mola, 45
Tel. 42 81 77

ALSASUA
Mayor, 8
Tel. 56 01 76

BILBAO
Gordóniz, 93
Tel. 32 78 85

MADRID
Paseo de la Chopera, 29
Tel. 228 45 46

VITORIA
Concejo, 5
Tel. 21 14 35

TOLOSA
Carr. Leaburu, s/n
Tel. 66 10 24

Gurutzegrama (2)

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1		■					■			
2		■				■			■	
3						■				
4				■			■			■
5	■			■						■
6			■		■					
7					■	■	■			
8								■		
9		■							■	
10	■					■				

Ezker aldetik eskuin aldera: 1. Kontsonantea. Zerbaitez baliaturik, gauza bat aldatu edo sorterazi. Urteko sasoi beroa.—2. Bokala. Izenorde galdegilea (alderantziz). Nota musikala (alderantziz). Kontsonantea.—3. Sentikortasuna bideratzen duen gorputz haria. Afaldu partizipioaren infinitiboa (alderantziz).—4. Aurpegiko zuloa. Zenbakia (alderantziz). Trankilaldia, normalki gauze izaten duguna.—5. Dolorezko oihu hitza. Esaten zuen. 6. Nota musikala (alderantziz). Bokala. Idisko (alderantziz).—7. Berorik eza (alderantziz). Heldua.—8. Euria ugari duena. Emea ez dena.—9. Kontsonantea. Zokoa, zokondoa, ertza. Bokala.—10. Hegaztia, oso ezaguna. Zatia (alderantziz).

Goitik behera: 1. Ahuntzaren arra (alderantziz). Urtsua, ura duena (alderantziz).—2. Eguzkitan edo berotan zimeldu, ur gabe gelditu. Bokala.—3. Txoria, beleen familiakoa. Hostoa.—4. Gain. Etxe batean, kanpora begiratzeko edo argia sar erazteko zuloa (alderantziz). 5. Aldi adberbioa. Diminutibo atzizkia.—6. Kontsonantea. «Berriro» adierazteko aurrizkia. Kontsonanteak.—7. Lo eragiteko, umeei esaten zaiena (alderantziz eta erreplikatzuz). Bokal berdinak. Zenbakia (alderantziz).—8. Uda denboran ikastoletako haurrak egoten diren tokia. Ortua (errepikatuz).—9. Kontsonantea. Hitzaren zatia, soinuz izatasuna ukan arren, esangurarik ez duena. Kontsonantea.—10. Galdera batean bi gauza bereizteko hitza. Eroa (artikuluarekin).

AZALPENA. Ezker aldetik eskuin aldera: 1. R. Egin. Uda.—2. E. Nor. Do. L.—3. Kirio. Afal.—4. Aho. Bi. Lo.—5. Ai. Zioen.—6. Re. O. Zekor.—7. Hotz. Umo («sagar umo».)—8. Eurtisu. Ar.—9. H. Bazter. O.—10. Oilio. Atal. Goitik behera: 1. Aker. Heze.—2. Ihartu. O.—3. Erroi. Orri.—4. Goi. Leiho.—5. Inoiz. Tto («gaztetto, handit».)—6. N. Bir. SZ.—7. Lolo. OO. Lau.—8. Udaleku. Baba.—9. D. Fonema. T.—10. Ala («hau ala hori?»). Zoroa.

Zertan gabilitza?

Behin eta berriz irakurri dut, otsailak* 4, Donostiako «Unidad» arrats aldizkarian agerturiko Santiago Aizarnaren artikulua. Eta beste behin ere zera segurtatu ahal ukan* dut, etxeko istilu eta xexioak* etxean bertan konpontzen ahalegindu beharrean, kanpokoan eskuak ere liskarkide* izan daitezen saiatzen garela. Bai dela hau tristurazko eta tamalgarri!*

Oraingo honen liskarbidea, Euskaltzaindiak bere azken lehiaketan* harturiko epaia izan da. Lehiaketan parte hartzaile bat —Euskaltzaindiko bera— kexu da eta oso arrazoindun, ene ustez. Horrelako lehiaketa batean, lan publikatu bati lehen saria ematea bistan da ez dela gisako. Zertarako, bada, eskatzen zen lan bakoitzarekin bere pliga* bidaltzea? Baseak betetzea ez da, bada, izan behar juraduaren lehen betetzekoa? Nire ustez, baseak betetzea baino gogoanago eduki du juraduak, lanak batasunean idatzita ala ez egotea. Baina batasunean idaztea ez zen baldintza, lanak ineditoak izatea bai. Batasuna kontseilutzat eman zen, ez baldintzatzat.

Salatariak* dioenez, bi eskutitz bidaliak ditu protesta gisa Euskaltzaindira. Ez omen* du erantzunik ofiziaiki jaso.* Euskaltzaindiaren hurrengo bileran ez omen zen —dio berak— gai horretaz ezertxo ere mintzatu. Zerbait oker eginaren susmoagatik ez ote zaio, bada, erantzun?

Eta, irakurriaz nindoalarik, hara zer topatu nuen Euskaltzaindiko salatariaren ahotan jarririk: **Euskaltzaindiaren gogoz bestera,* «tenemos derecho a expresarnos en nuestra propia lengua y no en esa maldita jerga que algunos han inventado».** Irakurleak berberak estima dezala hitz hauen garrantzia. Niri min ematen daut, Euskaltzaindiko batek, basoerdi bat hartzea bailitzen, honelako eritziak hedatzeak.* Horixe baino errespeto gehiago merezi dugu euskaldunok, «mila eta mila urtez gure herri honen lan-, min-, maitasun- eta zorionaren komunikabide» izan den eta den hizkuntzaren maila goreneko erakundearen* partetik. Zorionez erdiak baino askozaz gehiagok erabiltzen duen BATASUNARI nolatan dei* liezakeo Euskaltzaindiko batek gaur «jauntxo batzuek asmatu euskalgaitz madarikatu»? Irakurri berria nuen Euskaltzaindiak zuzendu daukun eskaria, bere etxearen edertzeko eta liburutegiaren osatzeko. Zeintzuk dira, ordea,* Euskaltzaindia?

Eta goian aipatu* artikulua irakurri ondoren, «Unidad»eko orrialde bereko Santiago Aizarnaren beste artikulua irakurri nuen: «Diálogo sobre el hueso». Eta berehalaxe, barne muinetaraino mindurik, «zertan gabilitza?» galdetu nion neure buruari.

AKAITZ

dauku, **dausku**, digu
daut, **daust**, dit
dezala, **daiala**
liezakeo, **leiskio**, lezaloke

nindoan, **ninoian**, joaten nintzen
nion, **neutsan**
zaio, **jako**

Langile arazoak Euskal Herrian, 1971. urtean

698 langile arazo edo «conflictos laborales» gertatu izan dira Euskal Herrian 1971. urtean: Gipuzkoan 501, Bizkaian 131, Nafarroan 29, Araban 7. Espainia osoari begiratzuz, Gizpuzkoako probintziak izan ditu gehien. Bizkaia laugarren dator, Nafarroa zortzigarren, eta Araba hamairugarren.



I. HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

Ale honeta izartxo batekin agertzen diren berbak

ABURU, eritzi, uste.
 AGIAN, beharbada, nonbait, **seguramente**.
 AGUDO, aguro, laster, arin.
 AHANTZI, ahanztu, ahaztu.
 AHANZTU, ahantzi, ahaztu.
 AHUL, makal.
 AIPATU, aipatutako, aipaturiko.
 AIPU, cita.
 AITZITIK, **al contrario**.
 ALA, **o qué?**
 ALDIZ, berriz, ordea, ostera.
 ALDRA, **tropel**, troupe.
 ALEGIA, **a saber, es decir, esto es**
 ALOR, arlo, sail.
 AMILTEGUI, **precipicio**.
 ARAKATU, aztertu, ikertu.
 ARAUERA, **según, conforme**.
 ARDIETS, ardietsi, erdietsi, lortu
 (potentzialetan).
 ARDURA, axola, arta.
 ARDURADUN, axoladun, **responsable**.
 AREAGO, oraindik gehiago.
 ARIKETA, ihardunketa.
 ARRUNT, **corriente, ordinario**
 ASKI, nahiko.
 AUSARTU, **atreverse, osar**.
 AZKAR, bizkor, laster, arin

 BAHITURA, **secuestro**.
 BAITAN, -gan.
 BARIK, gabe.
 BATIK BAT, batez ere, bereziki.
 BEHARGIN, langile.
 BEHINEN, **principal**
 BESTERA, kontra
 BIDE, bidezko, **justo, legítimo**.
 BILAKATU, hihurtu.
 BOLADA, unada, denboraldi
 BULEGO, **oficina, bureau**.
 BURURATU, gogoratu, **ocurrir, venir à l'esprit**

 DATEKE, da nonbait.
 DATZA, **yace, consiste**. (Etzan aditzaren
 forma).
 DEI, deitu (**potentzialetan**).
 DENDA, **tienda, boutique**.
 DIRAU, irauten du.
 DIRENO, diren artean.

 DUKEGU, dugu nonbait.
 DUKETE, dute nonbait.

 EGITURA, **estructura**.
 EI, omen
 ELEZURI, **palabra melosa, palabra lisonjera**.
 ENPARADU, **restante**.
 ERAKUNDE, **institución, organización, orga-**
nismo.
 ERAKUSTEGI, **escaparate**.
 ERAMANKI, eramaten, eroaten.

ERETI, era, abagadune, parada, **ocasión,**
oportunidad.
 EROR, erori, jausi, (**potentzialetan**).
 ERRESUMA, erreinu, estadu.
 ESKARATZ, sukalde.
 ESKOMIKATU, **excomulgar**.
 ESNATU, iratzarri, iratzartu.
 EUN, **tejido**. (Ehun eun, **cien tejidos**).
 EUSKALKI, **dialecto vasco**.
 EUSKALTZAIN, **académico del euskera**.
 EUSKARRI, **apoyo, sostén**.
 EZTEI, eztegu, **boda, noche**.

 FROGATU, **probar, demostrar**.
 FUNTS, **fondo, substancia**.

 GERATU, gelditu.
 GUN, hun, **tuétano, meollo, moelle**.
 GURA, nahi, gogo.

 HAINAKO, besteko, bazainbateko.
 HALABER, **igualmente, así mismo**.
 HAS, hasi.
 HAUK, honeek. (**Hauek aktibo, hauk pasibo**).
 HEDATU, zabaldu.
 HEIN, **medida, grado, proporción**.
 HELBURU, **fin, objetivo**.
 HEZI, **educar**.
 HEZIBIDE, **medio educativo**.
 HEZIKETA, **educación**.
 HOIK, horreek. (**Hoiek aktibo, hoik pasibo**).
 HOLGETAN, txantxetan.
 HORREGATIO, hala ere.
 HOTS, **a saber, es decir, esto es**.
 HURA, ha.
 HURBIL, **cercano, próximo**.

 IHAZ, igaz, jaz.
 IRAGAN, igaro, pasatu.
 IRAGARRI, **anunciar**.
 IRAULTZAILE, **revolucionario**.
 IRITXI, heldu, ailegatu.
 IRTEN, urten, atera, jalgi.
 ITAUNDU, galde egin, galdetu.
 IZPI, **rayo**.

 JARAMON, jarpén, **postura, actitud**
 JASAN, jaso, **soportar**.
 JASO, altxatu, **recibir**.
 JAUSI, erori.
 JAZO, gertatu.
 JOMUGA, helburu, **fin, objetivo**.

 KAZETALARI, kazetari, **periodista, journaliste**.

 LAGA, utzi.
 LANJEROSO, **peligroso**.
 LAPIKO, eltze.
 LEGEZ, lez, bezala.
 LEHIAKETA, **competición, concurso**.

LISKAR, **disputa**.
 LORTU, ardietsi, erdietsi.

 MARRAZKI, **dibujo, dessin**.
 MENDE, **siglo**.
 MENDEBALDE, mendebal alde, **occidente**.
 MEN EGIN, obeditu.
 MERKATALGO, **comercio**.
 NABARI, **evidente, patente, notorio**.

 NABARITU, **notar, percibir**.
 NARRAZ, **arrastrado, abandonado, desaliñado**.
 NEBA, neska batentzat bere aitaren seme
 NEHOR, inor.
 NOLAKOTASUN, **calidad**.
 NOSKI, naski, **ciertamente, claro está, desde**
luego.

 OMEN, ei.
 ONERITZI, **amor, dilección**.
 ORDEA, aldiz, berriz, ostera.
 ORO, guzti.
 ORTZE, zero.
 OSATU, osotu, **completar, perfeccionar**.
 OSTERA, aldiz, berriz, ordea.
 OTSAIL, **febrero**.

 PLIGA, **plica, sobre cerrado, envelope**
fermée.

 SALATARI, **denunciante**.
 SARRI, maiz.
 SARRIENIK, maizenik.
 SO EGIN, begiratu, behatu.

 TAMALGARRI, penagarri.
 TXOSTEN, idazlan, **trabajo escrito,**
comunicado.

 UGAZABA, nagusi.
 UHIN, olatu.
 UKAN, izan. (**Ukan aktibo, izan pasibo**).
 URRATS, pauso.
 URTARRIL, **enero, janvier**.

 XEDATU, **delimitar, fijar, definir, determinar**.
 XEHETASUN, **minuciosidad, detallamiento**
 XEXIO, zezio, **disputa**.

 ZALDUN, zaldidun, **caballero**.
 ZARATA, arrabots.
 ZENBAIT, batzuk.
 ZENBATASUN, **cantidad**.
 ZEREN (ETA), ze, **pues**.
 ZUZEN, zuzendu (**potentzialetan**).

II. EUSKARA BATUA

ARGITASUNAREN BEHARRA

1. Sarri askotan, herriak ez gaitu ulertzen, geure erruz ilun idazten dugulako, idazle onak, gaia berez ulergaitza izan arren, aparteko habilitatea izaten du, gauzak argiro azaltzeko.

2. Lehenengo eta behin, irakurleek ondo uler gaitzaten, sakonki ezagutu behar dugu euskara eta haren sintasia, eta ez erabili inoiz, euskaldun jatorren bela-rriei min egin liezakeen esaerarik.

3. Baina euskara ondo jakitea ez da nahikoa. Horrez gainera, argiro idatzi behar dugu. Gaur egun, zailtasuna eta iluntasuna dira euskal idazleen bekaturik haundiena. Horregatik, ahal dugun guztia egin behar du, geure burua irakurle arrunten mailara beharatzeko, errazki eta atseginez konpreni gaitzaten eta gure idazlanetaz asper eta gogait ez daitezen.

4. Uler errazak izateko erregela berezirik ez dago. Habilitate hori nork berak lortu behar du. Hala ere, ona izango da, hemen orientazio batzuk ematea:

- ahal dela, erabil bitez sententzia edo esaldi laburrak.
- ez luza sententziak, klausula subordinatu askorekin.
- aditz nagusiak konplementu asko dituenan, eta euskal sintasiak permititzen duenean, ez bitez jar konplementu guztiak aditzaren aurrean.
- idazleak, gaia ondo ezagutzen ez duenean, ez beza gai horretaz idatz.
- aukera bitez, euskaldunentzat interesa duten mila gairen artean, zailegiak ez direnak.
- jar bitez komak, behar diren kasu guztietan.

Munduko goseari buruz zenbait gogoeta

Mundua zati bitan bananduta aurkitzen dugu. Alderdi batetik, nazio aurreratuak, aberatsak, beren beharrak asetarik, oso lasai, bizitza artifizialki eratua gozaten dutenak. Bestetik, nazio atzeratuak, pobretasun iraunkor batetan bizi direnak, beren buruaren jabe izateko, zoritxarrez, gauza ez direnak. Giza eskubideak ukatuak dira hauentzat.

Bistan da, estatu aberatsen eta behartsuen arteko harremanak ez direla zuzenak. Baina egoera hau, norbaitek sorterazia eta eragina da, dudarik gabe.

Gaurko egoeran, nazio behartsuek, menperatuta eta atzeratuta daudenez gero, injustiziaren ondorio guztiak jasan* behar dituzte. Eta gosea, atzerapena, zapalkuntza eta abar, egoera horren salatzaileak bihurtu zaizkigu.

Ikus dezagun lehendabizi, zeintzuk diren atzerakuntzaren ezagugarriak:

- Jendea, urtean zehar, gosez bizi da. Gizonak 3.000 kaloria gutienez behar ditu, ondo bizitzeko. Gaur munduan 3.200 milioi bizilagun aurkitzen dira. Hoi-etarik 1.800 milioi ondo jan gabe bizi dira, eta, berrogei urtetara heldu baino lehen, heriotza hel-tzen zaie.
- gizon bakoitzak laurehun dolar baino gutiago pro-duzitzen du urtean. Errenta hau ez da inola ere nahikoa.
- ekonomia produkto gutiz baliatzen da, eta gehie-netan arrotz eskuetan aurkitzen da produkto hoi-en jabetza. Ekonomia produzio bakar batean oinarri-tuta egoten da.
- gehienak analfabetuak dira.
- gosea dagoenez gero, jendetza gehitu egiten da.

Horrela, estatu behartsuak, beren ekonomia hondatu-ta dutelarik, gero eta gehiago urruntzen dira estatu aberatsengandik maila guztietan. Bistan da, egoera hon-en erroa, iturburua, ekonomi eta politika egituretan* aurkitzen dela.

Gaur egunean, estaduen arteko salerosketako ekono-mi egitura, kapitalista da; eta atzerakuntza hain ugari aurkitzea, sistema horren ondorioa da, orain ikusiko dugunez.

Nazio behartsuek nekazaritza produktoak eta minera-lak saltzen dituzte, eta industri tresnak erosten. Nazio aberatsek, ostera,* industri tresnak saltzen dituzte, eta nekazaritza produktoak eta mineralak erosten.

Baina zer pasatzen da? Merkatuko prezioak estatu aberatsek jartzen dituzte, eta, jakina, industri tresnak garestitu eta nekazaritza produktoak merketu egiten dira. Honela, nazio behartsuen ekonomia gero eta txarrago eta menperatuago agertzen da.

Estadu behartsu hoi-ek, nahiz eta guregandik limos-nak eta laguntzak jaso,* ez dute horrekin ia ezer lor-tzen.* Haiei laguntzeko asmoz, estatu aberatsetan egi-ten diren diru bilketak eta antzeko ekintzak kaltegarriak dira luzaroan. Zeren,* ekintza hoi-ekin, estatu behartsuen egoera luzatzea bakarrik lortzen baitugu, eta ez funtsez-ko* soluzio bidea. Beraz, sustraira jo behar dugu, ezer

konpondu gura* badugu. Eta problema honen sustraia, lehen esan dugunez, ekonomi eta politika estrukturetan aurkitzen da.

Ba diosku Helder Cámara-k: «Egizue iraultza* estatu aberatsetan, eta berehalaxe askatuko dira estatu atzera-tuak».

Estaduen arteko salerosketaren esturktura aldatuz gero, herriek beste era batetara eratuko lituzkete beren ekonomia eta bizitza, zapalkuntza gutiagorekin; eta gi-zona gizon bezala osatuaz* eta heziaz* joango litzateke, bere lurraren eta hizkuntzaren eta kultura bereziaren gainean finkatuz.

Baina, noski,* esturktura hauk* ez dira berez jausi-ko.* Beraz, estatu atzeratuak soluzio bidean jartzeko, zein da nazio aberatsen eginkizuna?

Egoera honen sustraia estrukturetan aurkitzen baldin badugu, esturkturen aldaketatik argituko dira soluzio bi-deak. Nazio behartsu hoik* beren hondasun naturalen jabe izatea lortu behar da, jabetza hori nazio bakoitzaren eskuetan jarriz. Estadu barneko ekonomi sistema aldatu egin behar da, langileria nekazaritza indus-triara iragan* eraziz. Azkenez, bertako jendeak kultura eta tekni-ka bereganatu behar ditu.

Jakina, gauza hauek laguntza behar dute. Baina la-guntza hori estatu berezi batzuegandik bakarrik jaso-tzen* baldin bada, nazio behartsuak dependentzia bate-tan jartzen dira berriz ere, eta askatasunerako bidea berriro zarratzen zaie. Beraz, laguntza horrek nazio ar-teko erakundeetatik* etorri behar du.

Baina helburu* hauk ez dira lortuko, estatu aberatsen sistema barnean iraultza sortzen ez bada, zeren* estatu hauek beren komenientzien arauera* gidatzen baitituzte nazioen arteko salerosketak, eta aipatu ditugun ondorio gaiztoak hortik sortzen baitira. Beraz, problema hauk konponketa bidean jartzeko, ez da ia ezer dirua ematea. Nire ustez, diru emate hori norberaren burua justifika-tzeko egintza da gehienetan; eta hau gure nortasunaren osakuntzaren kontra doa. Diru emate horrekin bakarrik kontentatzen bagara, herri zapalduak gehiago zapaltzen ditugu oraindik.

Gogoeta hauk zuzenak iruditzen baldin bazaizkigu, jar gaitezen ekintzan, geure indarren mailan geure egunero-ko ingurua aldatzeko asmoz; eta, geure inguru honetan iraultza lortzen dugun neurrian, halaxe askatuko ditugu herri behartsu eta atzeratuak. Geure inguruan egiten di-tugun ekintzek aldatuko dute mundua.

JOSEBA AGIRREAZKUENAGA

daude, **dagoz**
dezagun, **daigun**
lituzkete, **leukeez**

zaie, **jake**
zaizkigu, **jakuz**

Pasaiko itsasportua arriskuan?

Pasaiko itsasportua arriskuan omen* dago, ez baitau jasoko* nonbait, «Ministerio de Obras Públicas» dala-koak orain arte ematen eutson laguntza. Hala balitz, obra berriak gelditu egingo ei* liriateke. Obra berri ho-rreek egiteko, ihaz* 31 milioi pezeta gastatu ziren. Hu-rrengo lau urteetan beste 600 milioi pezeta gastatzeko asmoa ei* egoen, eurotarik 400 Ministerioagandik jasoak.